

MAITANE SARRALDE

DANTZARI BERTIKALA

“Geroz eta distantzia handiagoa hartzen ari gara gorputz senarekin”

Basamortuan murgiltzen da Maitane Sarralde dantzaria ‘Madre Perla’ obrarekin. Dantza bertikalaren bidez trikimailuetatik harago istorio oso bat kontatzea du helburu

OLAIA L. GARAIALDE

ZORUA eta airea. Biak gustuko ditu Maitane Sarralde dantzariak (Bilbo, 1991). Dantza bertikalaren bidez basamortura jauzi egin du MagalieLanriot dantzariarekin batera. *Madre Perla* ikuskizunaren bidez, dantza bertikalaren bueltan sorturiko kode estetikoak apurtu nahi izan dituzte. Portugalen estreinatu zuten obra; eta ostean, Durangon (Bizkaia) erakutsi zuten. Obra formatu txikian zein handian egin daiteke. Durangokoa txikian izan zen, eta maiatza aldera formatu handian egiteko asmoa daukate.

Nola pasa zinen jarduera fisikoa eta kirol zientziak ikastetik dantzara?

Jarduera fisikokoa eta kirol zientzietako azkenaurreko urtean Granadara [Espainia] joan nintzen Seneca egitera, eta hor, beste dantza eskola batekin topatu nintzen. Dantza garaikidea aztertzen jarraitu nuen, eta azken urtean Lisboara joan nintzen. Bertan, kirol ikasketak egon beharrean giza motrizitatea zegoen; eta horren barruan, dantza ikasketak. Irakasgai pila bat hartu nituen, tartean, dantza terapeutikoa. Ostean, Olga Roliz konpainian dantza antzerkia ikasten hasi nintzen, eta aldi beren, dantza bertikala Magalie Lanriotekin.

Gogoan duzu lehen aldiz zintzilikatzean sentitu zenuena?

Beste modu batean bada ere zintzilikatzeko sentsazioa ezagutzen nuen eskaladagatik eta aireko akrobaziengatik. Hori baino, saltoak edo lasterka egiteko uneak gogoratzen ditut; batez ere, lehenengo jauzia. Asko gustatzen zait kanporako leherketa sentsazioa. Paretan hasi nintzenean, hormatik atera eta itzuli arte zazpi segundo nituen airean hogeita hamar metroko soka batekin. Oso potentea izan zen. Uste dut hortik jaio dela jauziekiko dudan nahia edo gustua.

Barneko kezkak, tartean zaurgarritasuna, azaleratzen dituzu zure lanetan. Barrenak askatzen laguntzen dizu?

Nahia Rojori esker lengoaia berri bat ezagutu nuen. Hitzez esan ezin dena gorputzaren bidez adierazi daitekeelako harrapatu ninduen dantzak. Oso tresna potentea da. Gaur egun adimenera eta mentaltasunera jo-tzen dugu eta ematen du indar gehiena duena dela. Baina, ahaztu egiten zaigu tresna bat dela. Geroz eta distantzia handiagoa hartzen ari gara gorputz senarekin edo adierazpenarekin eta deskonexio bat sortzen ari da. Gorputzaren bidez komunika-tzeko, sentitzeko eta gozatzeko aukera aberasgarria dugu.

‘‘Madre Perla’ du izena esku artean daukazun ikuskizunak. Zerk egiten du berezi landare hori?

Landarea bainoago, inguru giroa da interesgarria. Basamortua unibertso poetikotzat hartuta, basamortuko biosferaz edo bertan dagoen bizitzaren inguruko informazio pila aurkitu genuen. Horren artean, landarearen izena. Beti bizirik familiako landare bat da; hau da, euren kabuz erreproduzitzen dira. Bi pertsonaia daude ikuskizunean, eta euren indibidualtasunetik doazen arren, harreman bat dago.

Dantza bertikalaren bueltan sorturiko kode estetikoak zalantzan jarri nahi izan dituzue. Zein ezaugarri dituzte kode horiek?

Azken hamar urteetan ezagutu dudanagatik, birtuosismoaren, ikusgarritasunaren edo eraginkortasunaren inguruan formulatuta daude ikuskizunak. Txarto esanda, su besten antzera eginda daude; hau da, pausu edo trikimailu solteen sekuentziak dira. Halere, nire ikuspuntua da. Dantzatik etorrita aztertu nahi genuen zelan eman ahal genien espazioa poesiari, metaforari, jariotasunari, erritmo geldoari eta xehetasunei. Jakin nahi genuen guzti hori nola landu paretan narratiba bat sortzeko. Geure buruari galdetzen genion nola egin trikimailu horietatik urruntzeko, gehiegikerian ez erortzeko eta ez itotzeko. Azkenean, gure asmoa ez da hitz solteak sortzea, baizik eta bertso oso bat.

Magalie Lanriotekin, zure irakaslea izandakoarekin, murgildu zara sorkuntzan. Nola izan da elkarrekin sortzea?

Ikasketa handia maila askotan eta aldi berean oso aberasgarria. Zenbait zailtasun ere topatu ditugu bidean; batez ere, ikuskizunaren gaia zelan partekatu eta zelan egon harremanetan. Blanca Arrieta ere ibili da bidelagun kanpoko laguntza egiten. Haiengandik asko ikasi dut, baina ez da erraza izan.

Normalean airean eta lurrean ibiltzen zara. Bi espazio desberdin bezala ikusten dituzu edo bakarra da?

Biak maite ditut eta bien arteko harremanarekin geratuko nintzateke; ezin dut bat edo beste aukeratu. Gainera, bata gabe ez dago bestea. Airean eroso sentitzen naiz eta naturala eta oso intuitiboa egiten zait hor egotea. Gustuko dut zelan eska-tzen digun espazioarekiko erlazioa beste era batean izatea. Horrez gain, uretan murgilduta egotearen an-tzeko zerbait sentitzen dut. Hiru dimentsiotan mugitu zaitezke, grabitatearekin jolastu eta denbora dilatatu. Era berean esango nuke lurreratze prozesu batean nagoela edo lurrean gehiago egon nahi dudala.

Maitane Sarraldek eta Magalie Lanriotek ‘Madre Perla’ ondu dute. MARIANO ZÉ- DENIS WALL - G. PORTUGALUS.

Editorial Iparraguirre S.A.

ortzadarastekaria@gmail.com

Zuzendaria: Marta Martin
Koordinazioa: Uxue Gutierrez

Diseinua: Jesus Santamaria
Azala: nieznaizsorgina.eus

Lege Gordailua: BI 1720-06

IBERDROLA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du